

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

108/2019 Foru Agindua, maiatzaren 2koa, zeinaren bidez hasierako onespena ematen baitzaio Guardiako 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatietan, Done Bartolome aurkintzan, uraren biltegi erregulatzailer berria eraikitzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari

Arabako Errioxako Ur Partzuergoak obra lizentzia eskatu du Guardiako Udalean, edateko uraren 5000 m³-ko edukierako biltegi erregulatzailer berria eraikitzeko Guardiako 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatietan, Done Bartolome aurkintzan. Gaur egun erabiltzen ari den biltegi biribilaren ordez 40x28 metro inguruko biltegi berri laukizuzena eta giltza etxola jarri nahi dira gaur egungoaren aldameneko lursailetan, eta han dauden eta erabiltzen ez diren bi ur biltegi zahar eratsi.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago proiektu teknikoa, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita lurzatiak lurzoru urbanizaezin sailkatutako lursailean daudela, eta lehengoratu beharreko basogintzako babes zona eta akuiferoen babes zona gisa kalifikatuta daudela, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogenegun jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea Guardiako 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatietan, Done Bartolome aurkintzan, uraren biltegi erregulatzailer berria eraikitzearen interes publikoa adierazteko espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogenegun, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 2a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO